



VERTER RECYCLING ENPRESAK ZORROZTASUN HANDIAGOA ESKATZEN DU EUSKO JAURLARITZAREN EBAZPENARI DAGOKIONEZ, INGURUMEN-ERANTZUKIZUNARI BURUZKO ESPEDIENTEAREN HARIRA

Zaldibarren, 2021eko urtarrilaren 21ean.- Eusko Jaurlaritzak ebazpen bat eman du, zabortegian gertatutako luiziaren gaineko ingurumen-erantzukizuna Verter enpresari egotziz, instalazioko operadorea den aldetik, eta luizi horren ondorioz gertatu omen diren ingurumen-kalteak konpontzeko betebeharra ezartzen dio. Alabaina, Eusko Jaurlaritzak prozedura-berme egokirik gabe eman du ebazpen hori, eta kalteak kuantifikatzeko eta haien garrantzia zehazteko ezarritako metodologiak eta gidak alde batera utzita. Hori dela eta, enpresak zorroztasun handiagoa eskatzen du halako garrantzia eta oihartzuna dituen balioespena egitean eta neurriak ezartzean, bai jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, bai ebazpen horren amaierako ondorioei dagokienez.

Ebazpenean aipatzen diren erantzukizunei dagokienez, enpresaren iritzian ez dira betetzen Ingurumen Erantzukizuneko Legean erantzukizunak esleitzeko ezarritako legezko baldintzak, ebazpenean egiten den bezala, eta are gutxiago erantzukizun horiek enpresarenak soilik direla xedatzeko. Erantzukizuna operadorearena dela erabakitzeke eta kalteen garrantzia zehazteko, beharrezkoa da araudian ezarritako metodologiaren arabera egitea zenbatespena, eta kasu honetan ez da horrela egin. Verterrek gaitzetsi egiten du erantzukizun guztia eskusiboki enpresari esleitzeko erabakia, inplikaturako beste eragile batzuk ere erantzule izan litezke eta.

Verter Recyclingek, zabortegiko luizia gertatu zenetik, eremua konpontzeko eta egonkortzeko eginkizunetan lankidetzan aritzeko konpromisoa erakutsi du, bai eta Joaquín Beltránen gorpua aurkitzeko lanetan ere. Era berean, istripu tamalgarri hau eragin zuten zergatik argitzeko borondatea erakutsi du hasiera-hasieratik.

Edonola ere, ezinbestekotzat jotzen du egon litezkeen erantzukizunak argitzeko jarduketak beharrezko zorroztasunez egitea, ondorioak gertakari objektiboetan oinarritzen direla bermatzeko, Legeak agindu bezala. Izan ere, Legeak xedatzen du ingurumen-erantzukizuna erantzukizun objektibo bat dela, eta ingurumen-kalteak esanguratsuak izan direla ebaztea dela abiapuntua.

Horrez gain, administrazio-prozedurako bermeei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak emandako ebazpenean ez da bete alderdi inplikaturak entzunaldia emateko izapidea, zeina nahitaezkoa den, Ingurumen Erantzukizuneko Legearen arabera. Era berean, ondorioetan lurpeko uren eta lurzoruen gainean izandako kalteak «esanguratsuak» direla esaten da, eta enpresari egotzen zaio horren gaineko ustezko erantzukizuna. Ondorio horiei dagokienez, kalteak ez dira zenbatetsi egun erabiltzen den metodologiaren arabera, eta ondorioak, beraz, ez daude datu objektiboetan oinarrituta.

Azkenik, harrigarria da, zabortegiaren ingurua leheneratzeko plan bat prestatzeak zer-nolako lana eskatzen duen jakinda, enpresari 10 eguneko epean entregatzeko eskatzea, 5 egunez

luzatzeko aukerarekin. Horrek are nabarmenago erakusten du zer zorrotasun gutxirekin eman den ebazpen hori.

Verter Recycling enpresaren *online* oharrak: www.verter.eus

Informazioa: Arturo Zubiaga

Tel.: 94 415 86 42